

i
ra
ku
rri
matte

zumaiako literatur aldizkaria

irratia

irakurri matte

zumaiaiko literatur aldizkaria

AURKIBIDEA

aitzinsolasa	3
hala bazan... Pirata Ximon	4
irakurri nahi, matte? Bizi, Bixitxo!	8
kontu-kontari Sentipenak	10
kantu-kantari Zumaiari bira	13
irakurketa-proposamena Eider, argi pittin bat, mesedez!	14
literaturaz Zer egiten dugu gurasook umeak lo dauden bitartean	15

Argitaratzailea:



Laguntzailea:



Zumaiaiko Udala

Diseinua: Mari Bernal eta Roberto Gutierrez
Maketazioa: Roberto Gutierrez
Azaleko irudia: Ander Hormazuri
Lege-gordailua: SS-821-2008
Inprimategia: Antza S.L.

Zure lanak bidali nahi badizkiguzu,
hauxe duzu gure helbidea:
irakurri_matte@euskalerria.org

AITZINSOLASA

Txinparta

Orain bi urte proiektu honekin hasi ginenean, ez genuen asko uste hain harrera ona egingo zigutenik. Izan ere, halako bihotza jartzen dugu gure asmoak burutzeko... inoiz jakin gabe jendeak zer aldarerekin hartuko gaituen. Zorionez, baina, jendearen ahalegina eta ilusioa batzea lortu dugu oraingoz... eta hala jarraituko ahal dugu!

Baina asmoak ez dira ilusioz bakarrik hornitzen, eta hitz egin dezagun helburuez. Gure aldizkari honek badu helburu bat, baina lorgarria! Beti esaten da irakurtzea ona dela, euskarak irakurleak behar dituela, eta horrelakoak. Txinparta taldeak ere bide horretan bere papurrak jarri nahi ditu, ibili nahi duenarentzat, herritarrek horretara erakartzeko, hizkuntzari ere bultzadaxo bat emateko... Asmo handirik ez dugu, ezta? ;-)

Kalean esan diguzue zer iruditu zaizuen aldizkaria. Nonbait, di-da batean irakurtzen da: batzuek eguerdiko kafea hartu bitartean, besteek eskolara edo lanera bidean; badaude ere aurkezpen honetan aipatu-ezin-izango-dugun-lekuan irakurtzen dutenak... Beno... azken batean, argia eta erakargarria izatea lortu nahi genuen, eta, dirudienez, ez gabiltza oso urruti.

Ez da gutxi, gainera, kontuan hartzen badugu herritarren ahaleginaren fruitua direla aldizkari honetako lanak. Izan ere, harrutuko zarete zer lan irakurri, ikusi, dastatuko dituzuen Irakurri matte honetan. Orain arte parte hartu duzuenoi, bihotzez eskertzen dizuegu ahalegina, baina gainera, harro ere bagaude, horrelako lanak –enkarguz eginak, nahiz apalen batetik ateraziak– argitara ateratzeko lanean ari garelako, eta sormen-lan hauek dastatzea merezi duelako.

Horregatik guztiagatik, jendea animatu nahi dugu idaztera, baina baita marraztera ere, marrazkilariei zer egiteko gai diren erakusteko aukera ere eman nahi diegu eta. Bukatzeko, zu, irakurle, animatu nahi zaitugu, zu gabe alferrik gabiltzalako bide honetan. Horrenbestez, hemen duzu, lagun, herriko literatur aldizkaria izan nahi duen hau, bigarren aldiz. Gustu handiz dastatu... eta gozatu.


PIRATA XIMON

Testua: Josu Waliño
Irudiak: Dani Carballo

Pirata Ximonek hanka bat egurrezkoa dauka.

Ezkerreko hanka da, belaunetik behera itsasontzi zahar baten egurrarekin egindako makulu batez ordezkatua. Bere belaontzian atzera-aurrera dabilenean, klip-klop egiten dio, egurra egurraren kontra, eta bere ontziko pirata guztiak errespetuz begira gelditzen zaizkio. “Han dator Kapitaina”, esaten dute, “Pirata Ximon, zazpi itsasoetako erregea”. Eta elkarri kontatzen diote Pirata Ximonek tiburoi izugarri baten kontrako borrokan galdu zuela hanka, borroka ikaragarria izan zela, baina, Ximonek, ezpataz tiburoia hil zuela uretatik hanka bakarrarekin irten aurretik.

Bere bizar gorriaren azpian irribarre egiten du Pirata Ximonek horiek entzuten dituenean. Hanka tiburoi batek jan zion, bai, baina handik bizirik atera bazen ez zen bere ezpatari esker izan... tiburoiari hanka eztarrian trabatu eta bertan ito zelako baizik! Baina, tira... hobeto gelditzen da ezpataren istorioa, ezta?



Pirata Ximonek kolore biziko loritoa dauka.

Fredi du izena, eta Pirata Ximonen sorbaldan egoten da, zutik, inguruan gertatzen denari adi. Bertan bizi dela ere esan liteke.

Urrutiko uharte batean jaso zuen Fredi Pirata Ximonek, bere altxorra ezkutatu zuen uhartean, eta, harrezkero, hitz egiten ere irakatsi dio.

Itsasontzian, batera eta bestera dabilenean, ikasitakoak lotsagabe botatzen dizkie Fredik gainerako marinelei: “Graak!” esaten die “alperrak, alperrak, graak!”. Horrela jarduten du lurra garbitzen duten marinelekin, sokak tenkatzen dituztenekin, edo baita sukaldariarekin ere.

Pirata Ximonek barre txikia egiten du horrelakoetan, bere bizar gorriak ezkututzen dion barrea hau ere. Baina beste piratek ere irakatsi dizkiote hitz batzuk Fredi loritoari, eta tarteka, honek, “Pirata Ximon kakati mokordon!” eta antzekorakoak botatzen ditu denen pozerako. Gorri-gorri jartzen da horrelakotan Pirata Ximon, eta Fredi patatekin jango duela mehatxatzen du beste piratak barrez lehertzen diren bitartean.



Pirata Ximonek kanoiz jositako itsasontzi izugarria dauka.

Belaontziaren masta nagusian bere ikurra zabaltzen du Pirata Ximonek: bandera beltz beldurgarria. Eta bandera beltzaren erdian, bi hezurrek gurutzatutako gazezur zuria ageri da. Edozein itsasontzi ikaratzeko moduko ikurra.

Ikur bera dauka Pirata Ximonek bere txapelean, Kapitainaren txapelaren erdi-erdian marraztutako gazezur txikia, zulatutako gazezurra, ordea. Harro eramaten du Pirata Ximonek txapela, bera delako piraten Kapitaina, bera delako Pirata Ximon!

Eta tabernetan, rona edanez mozkortzen denean, entzun nahi duen edonori kontatuko dio bere txapelaren zuloaren istorioa, borroka bortitz batean pistola baten tiroek egindako zuloa.

Horrelakotan, ronaren eraginez edo, istorioaren zati bat kontatzea ahanzten zaio, ordea: ez du esaten zuloa egin ziotenean txapela ez zela berea, bere ontziko kapitainarena baizik, eta tiro egin zuena Pirata Ximon bera izan zela.





Pirata Ximonek lotara joan beharra dauka.

Amak deitu dio sukaldetik, eta Pirata Ximonek oheko izara artetik atera du burua.

–Ximon! Itzali argia, eta lotara! –esan dio amak gelan sartuta.

–Jo! Ama! Utzi pixkat gehiago! –erantzun dio Ximonek burua berriz izara artean ezkutatuz.

Ximonek badaki, ordea, amak ez duela errukirik, piratek bezala. Eta goibelduta, egunkari-orriz egindako txapela burutik kendu, trapuzko lorittoa apalean utzi, eta kanoiz jositako itsasontzi izandako izarak txukunduta, goxo tapatzen da, Pirata Ximon bere ametsetan bueltatuko denaren esperantzan.



BIZI, BIXITXO!

Uxo Sorazu



ARGITALETXEA: Aizkorri
SAILA: Irakurri, bizi
ARGITARATUTAKO URTEA: 2008
EGILEA: Imanol Azkue
ILUSTRATZAILEA: Eider Eibar

Ipuin laburra eta irakurtzeko oso erraza, 6 urtetik aurrerako umeek bakarrik irakurtzeko modukoa da, letra handia eta garbia baitu. Bestalde, gurasoek edozein gautan beren seme-alabei oheburuan irakurtzeko atsegina eta arin kontatzeko modukoa.

Istorio honetan, Manex eta Izarren aita den Xabi igande goiz batean garajera jaisten da autoa hartzera. Garajeko isiltasuna bat-batean hausten da, zerbait arraroa entzuten du: “miau” bat da. Ez dago dudarik “miau” hori bere autoko motor aldetik entzuten da: katakume bat da. Motorra martxan jarriz katakumeak hanka egingo duela pentsatzen du Xabik, baina oso oker dago, ez da hala gertatzen. Katakumea handik ateratzeko laguntza bila dabil: lehendabizi gasolindegi batean, ondoren, ertzain etxean eta, azkenik, bere lagun Xixariorengana joaten da. Berak laguntzen dio Bixitxo autotik ateratzen. Baina zer egin behar du berekin? Non utzi katakume bizi-bizi eta bihurri hori?

Bestalde, marrazki eder eta erakargarriak ditu. Kolore asko dituzte, bizitasun eta errealitate handia ematen diote ipuinari eta istorioari. Protagonistek espresio

handia dute, aipatzekoak Bixitxoren begi eder eta handiak eta, nola ez, beste protagonisten irribarre eta keinu guztiak oso lortuak daude.

Aipatzekoa da lehenengo pertsonan idatzitako kapitulu labur-laburrez osatuta dagoela. Kapitulu bakoitzari sarrera emanez bertan hitz egingo duen pertsonaiaren marrazkia edota bineta aurkitzen da, eta, azpian, izena. Kapitulu bakoitzean, gainera, marrazki eder eta handi bat azaltzen da. Lehenengo pertsonan idatzita egoteak eta horrelako marrazki ederrak edukitzeak errealitatera gerturatzen dute, kontakizunari bizitasuna eta sinesgarritasuna emanez.

Bukatzeko, txikitako oroitzapenak dakartzan istorio bat da. Nork ez du txikitan maskotaren bat eduki edo eduki nahi izan? Zenbat borroka gurasoekin txakurkume, katakume, dortoka, akuri edo horrelakoren bat etxera eramateko? Lagunei erakutsi, inbidia pixka bat eman eta beraiekin disfrutatu... Ipuntxo honekin ere berdina gertatuko zaizue, une atsegina pasako duzue eta, disfrutatu!

SENTIPENAK

Testua: Axun Elduaien
Irudia: Maitane Cabeza

Menopausiaren beroaldiak eta bakardadearen hotzikarak sentitzen aspalditxo hasi zen Bittori. Lehen gurasoen babesa zuen. Azken urteetan lan ugari eman bazioten ere, haien ondoan ziur eta lasai sentitzen zen. Hiru mutilen artean alaba bakarria izateak alde onak eta txarrak zituen, jakina. Txikitatik etxeko printzesa zenak hartu behar ardura guztia.

—Ez dut uste printzesak horrela biziko direnik!

Eta hil zirenetik, etxetik lanera eta lanetik etxera. Bere ustez, bakar... bakaaarr... bakarrik bizi zen.

Hori bai, telebistan agertzen diren pertsonaien bizitzen gorabeheretan aditua egin zen eta bulegoko lankideen arazoetan ere bai. Telefonoa hartu eta fotokopiak egiten zituen. Fotokopiagailuaren aurrean zeuden bitartean, guztiek aprobetxatzen zuten beraien penak kontatzeko, baina, besteenak entzuteko gogo handirik ez eta bera zerbait kontatzen hasten zenerako, presa edukitzen zuten. Inor ez balitz bezala sentitzen zen. Noiz edo noiz, bulegokoak afariren bat zutela eta, gonbidatu izan zuten, baina horietan aitzakiak asmatzen zituen, anaiekin ospakizunen bat, gaztetako lagunekin egon beharra... Ez zezatela pentsa bakarrik zegoenik!

Baina etxera itzultzerakoan, egunerokoa, telebista eta argazki zaharrak. Orduak eta orduak igarotzen zituen argazkiei begira. Nolako garai politak lehengo haiek! Begira zer ondo nagoen hemen, Teresarekin batera bizikleta gainean! Hura ere auskalo non dabilen! Donostiara edo ezkondu zen.



Asper-asper eginda zegoen egun batean, erabakia hartu zuen, errebistetako kontsultorio psikologiko horietako batera idatziko zuen. Bai horixe! Arretaz irakurtzen zituen besteei emandako aholkuak eta oso zentzuzkoak ziruditen. Bilboko Rosa ezizena erabiliz, galdera egin zuen eta zain eta zain egon eta gero, handik hilabetera edo, aldizkaria eroatera joan zenean, nolako ezustekoa. Erantzun egin zioten! Egun guztia egon zen urduritasuna ezkutatu ezinik. Iluntzean, behin eta berriz irakurri zuen han jartzen zuena: “Bilboko Rosari. Harremanetarako duzun zailtasun hori bideratzeko neurriak zeuk hartu behar dituzu, beste inork ez du egingo lan hori. Hasieran gogorra egingo zaizu, baina besteei entzuten ikasi behar duzu. Jar zaitetz harremanetan zure zaletasun berak dituzten taldeekin eta ikusiko duzu nola emaitza onak izango dituzun”.

Hara! Bai arazoa konpondu ere! Ondo nekien lehendik ere, ez zirela besteak niregana etorriko! Eta zaletasun bera duten taldeak! Herri txiki honetan, non aurkitu behar ditut ba talde

horiek? Eta besteei gehiago entzun? Oraindik gehiago? Kexuen harresia ematen dut eta! Honetaz ahaztea hobe!

Gutziz nazkatuta zegoen.

Egun batean, buzoitik jasotako propagandari begira zegoen bitartean, argia piztu zion albistea ikusi zuen: bizikletan ibiltzeko ikastaroa antolatu dute! Hortxe emango dut izena!

Txandal bat erosi eta ile-apaindegira joan zen.

—Gure Maribi maitemindu edo egin da, begira nolako irribarrea! —zioten lankideek.

Eta bai, aspaldiko partez, oso pozik sentitzen zen.

Bizikleta hartu zuenean, nolako urduritasuna! Han ikusten zituen beste ikasleak, lurrera behin eta berriz erortzen, eta berak, hasieran itxura batzuk egin bazituen ere, berehala erakutsi zien bere abilezia.

—Aupa Somarriba! —esaten zioten besteek.

Denak amaitu arte egoten zen eta bere auzoan bizi zirenekin batera egiten zuen etxerako bidea. “Zaletasun bera duten...”. Hauxe izango da!

—Baietz, baietz, Maribik zerbait berezia baduela!

Ikastaroaren azken egunerako afari-merienda antolatu zuten. Bere barruan kabitu ezinik zegoen. Baina, ez, ez, ezin daiteke... han urrutira ikusten dudan hura Teresa ez al da? Bihotza lehertzeko zorian... Bai, bera da...

—Baina Bittori, zer egiten dun hik hemen? Zer ari haiz, besteei erakusten edo? Nola ibiltzen ginen gaztetan, e? Bizikletarekin makina bat jolas egindakoak gaitun!

Kaka zaharra!

—Sentitzen dut, baina gaur beste afari baterako gonbidapena jaso dut eta ezingo dut gelditu —esan zien besteei, gorri-gorri eginda.

Eta etxera, bakar.....bakaaaarr.....bakarrrrik.

ZUMAIARI BIRA

Doinua: Mando baten gainean

-1-

Gure herrian buelta
ospetsu bat bada
lehendabizi goazen
Beheko Plazara
Arritokietan gora
ahal dugun erara
Buenabistan behetik
bista ederra da
jo dezagun aurrera
Elorriagara

-2-

Aldapa jaitsi eta
pasa karretera
eta berriz auspoa
berotu atzera
handik behera goaz
Tellendi aldera
poligonoa pasa
eta Agotera
antzinako agoten
auzoa ote da?

-3-

Handik gora zegoen
lehen zabortegia
Ibañarrietara
goaz alegia
Azkarategainetik
bista egokia
Gazteluerrekatik
bistan da Oikia
autopista bakarrik
dauka aitzakia

-4-

Urolaren gainean
hamaika zubi da
Mantzizidorrekoa
pasa degu di-da
handik aldapa igo
eta Artadira
errepidean behera
azkenik herrira
eta osatu degu
Zumaiako bira

EIDER, ARGI PITTIN BAT, MESEDEZ!

Miriam Romatet

Ipuien liburuak, narrazio motzak, gustatu egiten zaizkit: tarteka irakurtzeko aukera bakarrik hartzen dugunontzat ezin hobeak dira, eta bizitza, jende, kontu ezberdinetara kuku egiteko gonbidapen ederrak iruditzen zaizkit.

Eiderrek 12 istorio labur kontatzen dizkigu liburuan. 12 istorio pertsonaia ezberdinen esku, emakume, gizon, zahar gazte; ikuspuntuak aldatzen ditu, baita lekuak ere, baina nahiko erraza egiten zaigu kokatzea, non eta noiz gauden, askotan zeharka aipatzen duen xehetasunen bat edo bestea dela eta.

Hizkuntza aberats baten bidez, pertsonaien barne-barnera eramaten gaitu, baina askotan birritan irakurri behar izan dut zatiren bat ondo ulertzeko, ez dioena, esan nahi duena baizik, edo hobe esan, kontatu nahi duena. Lehentxeago idatzi dut zeharka kontatzen dituela gauzak; baina agian gehiago da, batzuetan, hutsunea, ez esatea da jaso behar duguna...

Hau, idazteko era bat izateaz gain, lotuta dago kontatzen dizkigun istorioetako emozioekin; pertsonaiei buruz ezer ez dakigu, kontakizun labur horiek bakarrik, ia bat-bateko argazkien pare, baina emozioak zuzen-zuzen iristen zaizkigu: hutsunea, bakardadea, tristura, errutina, ezkutuko amorrua,...

Liburuaren azala zuri-beltzean da, eta nik istorio gehienak horrela ikusi ditut; paisaia ezberdinak margotzen badizkigu ere (Zurriola, Aiako baserri mundua, kartzela zuloa, Korsika,..), guztiak malenkoniak, hutsuneak lausotuta iritsi zaizkit.

Horregatik, behinola Felliniri bere filmei buruz egin omen zioten bezala, nik Eiderri zera eskatu nahi nioke: argi pixka bat, mesedez, atera gaitzazu hainbesteko iluntasunetik!



ZER EGITEN DUGU GURASOOK UMEAK LO DAUDEN BITARTEAN


Imanol Azkue

Aurreko zenbakian nire ipuin labur bat azaldu zen Irakurri matte honetan, eta ipuin haren haritik, pare bat kontu ekarri nahi dizkizuet, irakurzaletasunari buruz hausnartzeko balioko dutelakoan:

- 1) Tarteka, tokatu izan zait ikastetxe batzuetara joatea nire liburuez hitz egitera eta amaieran, batzuetan, ariketatxo jarri izan diet gaztetxoei: “Zer egiten dute...” ipuina irakurri eta beraien gurasoek zer egiten duten idaztea. Duela gutxi Bizkaiko herri bateko ikastolan izan nintzen, 40 umeren aurrean, eta guztiek erantzun zioten galderari: “Zer egiten dute zuen gurasoek zuek lo zaudeten bitartean?”; badakizue zenbatek erantzun zuten “irakurri”? Inork ere ez. Seguru asko, ariketak ez du oinarri zientifikorik, ez du balioko ondorio soziologikorik ateratzeko, baina erantzunak irakurrita, ondorio garbia atera nuen nik: guraso gehien-gehien-gehienek, batez ere, telebista ikusten dute umeak oheratu ondoren.
- 2) Lehengoan, Zumaian, kalean gelditu ninduen nire edadeko ama batek. “Aizu! Zure liburu berria egokia al da gure semearentzat? 14 urte dauzka, eta maisuak esan digu komeni zaiola gehiago irakurtzea, baina ez du nahi!”. Komentatu nion udal-liburutegian liburu asko eta interesgarriak badaudela, eta ez dela ohitura txarra hamabostean behin hara joatea, liburuak hartzera eta uztera. Ez nintzen atrebitu galdetzen amari ea berak irakurtzen zuen edo udal-liburutegira joaten zen.

Irakurri matte honen helburuetako bat irakurzaletasuna bultzatzea da, eta azpimarratu nahiko nuke gurasoek badaukagula zer egin horretan. Haurrek aita-amen ispiluan begiratzen dute askotan, eta liburuaren aurrean ikusten bagaituzte, irakurtzea ez zaie arrotza egingo.

Beno, umeak oheratu ditut eta orain telebista ikustera noa. Aio!



erh aizuak tx
vib uruak abitz z